

# *VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021*

## Euskal Autonomia Erkidegoa

# LABURPEN-TXOSTENA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

*Donostia, 2023-03-20*

HIRUKO  
ITUNA  
Eusko Jaurlaritzakoa



Inkesta soziolinguistikoak euskararen egoera eta bilakaera aztertzen ditu, eta honako aldagai hauek jorratzen ditu: **hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, eremu formaletan...) eta euskararen sustapenari buruzko jarrera.**

**Inkestaren unibertsoa:** Inkesta soziolinguistikoak **Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleak** hartzen ditu kontuan (2.680.000 pertsona gutxi gorabehera). Ikerketaren diseinua, laginaren prestaketa, datuen ustiaketa eta lanketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin du.

Inkesta Soziolinguistikoa bost urterik behin egiten da, eta lehenengoa 1991n egin zen. Hortaz, **azken 30 urteetan euskarak izan duen bilakaera ezagutzeko aukera ematen digu VII. Inkesta Soziolinguistikoak.**

Euskal Autonomia Erkidegoan 4.550 inkesta egin dira. Horietatik, 2.650 euskaldunei eta 1.900 ez euskaldunei. EAEko lagin osoaren laginketa-errorea  $\pm$  % 1,76koa da ( $\pm$  % 2,09koa euskaldunen kasuan eta  $\pm$  % 2,49 ez euskaldunenean) % 95,5eko konfiantza mailarako eta  $p=q=\%$  50.

Landa-lana 2021eko udazkenean egin du SIADECO Koop EM enpresak.

## VII. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAREN EAEko FITXA TEKNIKOA

- Aztertutako unibertsoa Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) 16 urte edo gehiagoko biztanleria izan da.
- Ikerketaren diseinua, laginaren prestaketa, datuen ustiaketa eta lanketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin du.
- Landa-lana SIADECO Koop EM enpresak egin du.
- EAEn 4.550 inkesta egin dira. Horietatik, 2.650 euskaldunei eta 1.900 ez euskaldunei.
- EAEko lagin osoaren laginketa-errorea  $\pm$  % 1,76koa da ( $\pm$  % 2,09koa euskaldunen kasuan eta  $\pm$  % 2,49 ez euskaldunenean) % 95,5eko konfiantza mailarako eta  $p=q=\%$  50.
- Konfiantza maila bererako laginketa-errorea lurraldeka honakoa da:
  - Arabak  $\pm$  % 3,74 ( $\pm$  % 4,49 euskaldunen kasuan eta  $\pm$  % 4,66 ez euskaldunenean).
  - Bizkaian  $\pm$  2,66% ( $\pm$  % 3,22 euskaldunen kasuan eta  $\pm$  % 3,57 ez euskaldunenean).
  - Gipuzkoan  $\pm$  2,78% ( $\pm$  % 3,18 euskaldunen kasuan eta  $\pm$  % 4,66 ez euskaldunenean).

## EUSKALDUNEN BILAKAERA


2021eko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, EAeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen **% 36,2 euskalduna da**, % 18,6 euskaldun hartzailea eta % 45,3 erdalduna. EAEn 16 urte edo gehiagoko **680.629 euskaldun** daude, 1991n baino **261.000 euskaldun gehiago** daude gaur egun; euskaldunen ehunekoak 12 puntuko hazkundera izan du azken 30 urteotan (% 24,1 versus % 36,2). Euskaldunek hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan egin dute gora.



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Hiru lurraldeak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. Gipuzkoako biztanleriaren erdia baino gehiago euskalduna da (% 51,8). Bizkaian, berriz, biztanleriaren herena da euskalduna (% 30,6). Azkenik, Arabako biztanleriaren laurdena da euskalduna (% 22,4).


Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Adinari erreparatuz, **Euskaldunen ehunekorik handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean dago**: 16 eta 24 urte bitartekoen % **74,5 euskaldunak** dira; 1991n % 25 ziren.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE. 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Sexuari dagokionez, **emakumezkoen artean % 36,5 da euskalduna eta % 35,8 gizonezkoen artean**. Ikusten denez, euskaldunen ehunekoa apur bat handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, 0,7 puntu, hain zuzen ere. Lurraldeen

artean, **alderik handiena Araban** dago, 2,6 puntuko aldea emakumezko eta gizonezko arabarren artean (% 23,6 emakumezko euskaldunak eta % 21 gizonezkoak).

#### Euskaldunak sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	36,2	22,4	30,6	51,8
Emakumezkoak	36,5	23,6	31,0	51,8
Gizonezkoak	35,8	21,0	30,1	51,9

*Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*

Euskaldunen kopuruaren hazkundearekin batera, euskaldunen ezaugarriak aldatu egin dira. Euskaldunen artean, euskal gizartean oro har gertatzen ari den bezala, errealitate asko dago, lurraldeari, gune soziolinguistikoari, jatorriari, adinari edo sexuari begiratzen badiogu.

Aldaketa horietako batzuek EAEko gizartean gertatzen ari diren aldaketa soziodemografikoekin dute zerikusia:


- **Gizartea gero eta zaharragoa** da: bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotza-tasa gero eta txikiagoa. Saldo begetatiboa, (jaiotzen eta heriotzen arteko saldoa), negatiboa da; gehiago dira heriotzak jaiotzak baino.
- Azken hamarkadetan **atzerrian jaiotako gero eta jende gehiago** etorri da EAera. Etorrin horietako gehienak gazteak dira. Horrek eragin bikoitza du gizartean. Batetik, EAEko biztanleriaren hazkundera migrazio saldo positiboari zor zaio soilik. Bestetik, gazteen artean pisu handia hartzen ari dira atzerrian jaiotakoak.
- Garapen urbanistikoaren ondorioz eta mugikortasunerako erraztasunak lagunduta, **biztanleriaren mugikortasuna** areagotu egin da.
- **Globalizazioaren** indarra, hizkuntza hegemonikoak erdigunean jarri baititu.

Gizartean izan diren aldaketek gain, euskaldunen ezaugarriak ere aldatu egin dira, batez ere euskaldun gazteen ezaugarriak. Jarraian azalduko dira aldaketa horiek.

Duela 30 urte euskaldunen % 60 hirugarren edo laugarren gune soziolinguistikoetan bizi zen, hau da, gune euskaldunean edo nahiko euskaldunean, eta % 40 lehenengo edo bigarren gune soziolinguistikoetan, hau da, gune erdaldunean edo nahiko erdaldunean. Gaur egun, alderantziz gertatzen da. EAEko euskaldunen erdia baino gehiago (% 55,4)

lehenengo eta bigarren gune soziolinguistikoetan bizi da, eta hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan % 44,7. Beraz, **euskaldun askok euskaldunekin hartu-emanak izateko duten sarea oso mugatua da gaur egun**. Izan ere, lehenengo eta bigarren guneko euskaldunak bi gune horietako biztanle guztien laurdena baino ez dira (% 26,5).

Euskaldunen banaketa gune soziolinguistikoaren arabera  
EAE, 1991-2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

## EUSKARAZ HITZ EGITEKO ERRAZTASUNA

Euskaldunen ezaugarrietan gertatu den beste aldaketako bat euskaraz hitz egiteko erraztasunarena da. Euskaldunak irabazi ditugun neurrian, gora egin du erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa duen euskaldunen kopuruak. Gaur egun **euskaldunen % 44,3k erraztasun handiagoa du erdaraz hitz egiteko** (1991n % 37,8 zen). Euskaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa duten euskaldunak gutxiago dira gaur egun (% 27,4 versus % 34,6).


## Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Euskaraz erraztasun handiagoa edo erdaraz besteko erraztasuna duten euskaldun gehienak Gipuzkoan bizi dira (217.000). EAEn, 379.000 dira. Arabako eta Bizkaiko euskaldun gehienek, berriz, erraztasun handiagoa dute erdaraz egiteko.

## Euskaldunen erraztasuna lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

LEHEN HIZKUNTZA

Erraztasunak lotura handia du lehen hizkuntzarekin. Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik etxean jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

EAEko 16 urte edo gehiagoko **biztanleriaren % 18,4k euskara soilik jaso du etxean eta % 6,5ek euskara eta erdara**. Era berean, lautik hiruk (% 75,1), erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiago direla lehen hizkuntza gaztelania ez den hizkuntza bat edo gehiago dituztenak. **Lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira EAEko lurralde eta adin-talde guztietan**. Adinari erreparatuz, 16-24 urte bitarteko **gazteek dute euskara soilik eta euskara erdararekin batera jaso dutenen ehunekorik handiena** (% 24,1 eta % 13,8 hurrenez hurren).




Euskaldunen lehen hizkuntza asko aldatu da azken 30 urteotan. **1991n euskaldun gehienak (% 79,3) euskaldun zaharrak ziren**, hau da, etxean jaso zuten euskara. **Orditik pisua galtzen joan dira (-31,2 puntu)**, eta 2021ean, oraindik, nagusi izaten jarraitzen badute ere, euskaldunen erdia baino gutxiago dira dagoeneko.

**Euskaldun berriak eta jatorrizko elebidunak duela 30 urte baino bi aldiz gehiago dira gaur egun**. Euskaldun berrien hazkundera 22,7 puntukoa izan da eta jatorrizko elebidunena 8,6 puntukoa.




Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera.  
EAE, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Adinak behera egin ahala txikiagoa da euskaldun zaharren ehunekoa, eta handiagoa euskaldun berriena eta jatorrizko elebidunena. Euskaldun berrien hazkundera handia izan da adin-talde guztietan, baina bereziki gazteen artean. 2021ean **16-24 urte bitarteko euskaldunen ia erdia (% 49,2) euskaldun berria da** (1991n % 26,3 ziren). Euskaldun berriek, etxetik kanpo, eskolan edo euskaltegian jaso dute euskara.

Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera  
EAE, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021


## EUSKARAREN FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Eta zertan da etxeko edo familia bidezko euskararen transmisioa? Familia bidezko euskararen transmisioari dagokionez, **guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben % 85,5ek euskara soilik jaso du etxean EAEn**, % 7,8k euskara eta erdara eta % 6,7k ez du euskararik jaso. **Adinean behera egin ahala, handiagoa da etxean euskara jaso dutenen ehunekoa**. Gazteen artean gero eta gehiago dira gurasoengandik euskara erdararekin batera jasotzen dutenak.



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Gurasoetako bat euskalduna denean, hau da, familia mistoetan, seme-alaben % 46k jaso du euskara (erdararekin batera) etxean. **Adinean behera egin ahala, familia mistoetan ere gero eta gehiago dira etxean euskara (erdararekin batera) jaso duten seme-alabak**. Izan ere, familia mistoetan, 16 eta 34 urteko seme-alaben, % 57,4k jaso dute euskara (erdararekin batera) etxean. Euskaraz dakiena ama denean seme-alaben erdiak (% 49,9) jaso du euskara (erdararekin batera) etxean, eta. euskalduna aita denean, seme-alaben % 41,7k.




*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*

Hizkuntzaren transmisioan, gurasoen hizkuntza-gaitasunaz gain, eragin handia du haien lehen hizkuntzak. **Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 98k euskara soilik jaso du etxean eta % 2k euskara eta erdara.**

Guraso biak euskaldunak direnean eta bietako baten lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 88k euskara soilik jaso du etxean, % 10ek euskara eta erdara eta %2k erdara.

**Gurasoa biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza erdara denean, seme-alaben % 35ek euskara soilik jaso du etxean, % 36k euskara eta erdara eta % 29k erdara.**

3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2021 (%)






Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

37


Guraso bakarra euskalduna denean eta bere lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 84k euskara eta erdara jaso du etxean, eta guraso euskaldunaren lehen hizkuntza erdara denean, % 57k.

## EUSKARAREN ERABILERA

Euskararen erabilerari buruzko datuak eman aurretik, erabileran gehien eragiten duten faktoreak aztertu dira. Horretarako, korrelazioen analisia egin da. Korrelazioen analisiaren bidez, aztertu nahi den aldagaian (erabileran) zer beste aldagaik eta zein neurritan eragiten duen aztertzen da. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak erabiliz egindako korrelazioen analisiaren arabera, **erraztasuna eta harreman-sarea dira euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak.**



Bi faktore horiek ez dute euskararen erabilera erabat bermatzen. Beste aldagai batzuek ere eragiten dute euskararen erabileran (jarrerak eta interesak, esaterako). Baina harreman-sarea bermatzen denean eta euskaraz hitz egiteko erraztasuna nahikoa denean, euskararen erabilerak gora egiten du.



Orain arte ikusitakoaren arabera, harreman-sareari dagokionez, euskaldunen erdia baino gehiago (% 55,4) lehenengo eta bigarren gune soziolinguistikoetan bizi da, eta euskaldunekin hartu-emanak izateko duten sarea mugatua da; erraztasunari dagokionez, gaur egun euskaldunen % 44,3k erraztasun handiagoa du erdaraz hitz egiteko.

Baldintza orokorrak horiek izanda, euskararen erabilera zertan den aztertuko da jarraian. **16 urte edo gehiagoko biztanleen % 22k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du EAEn**, % 11,5ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, % 5,7k oso gutxitan erabiltzen du euskara eta gainerako guztiek (% 60,9) erdara erabiltzen dute.


**Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera.** Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak **% 40,8 dira Gipuzkoan**, % 14,5 Bizkaian eta % 7,8 Araban. Lurraldeen arteko alde horiek ulertzeko, ikusi dezagun zenbateraino bermatzen diren Gipuzkoan euskararen erabileran eragiten duten bi faktore nagusiak:

- Lau udalerrri izan ezik (Errenteria, Irun, Pasaia eta Donostia), Gipuzkoako udalerrriak hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan daude. Gainera, lau udalerrri horiek bigarren gune soziolinguistikoaren goiko aldean daude, hau da, hirugarren gune soziolinguistikoan sartzetik gertu.
- Gipuzkoako euskaldunen % 62,5ek euskara jaso du etxean, eta horietatik herena baino gutxiago dira erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa dutenak.

Arabian eta Bizkaian baldintzak oso bestelakoak dira, eta horren ondorioz askoz txikiagoa da erabilera.

**Azken 30 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak 6,4 puntu egin du gora EAEn.** Gaur egun 1991n baino 141.700 pertsona gehiagok erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago. Euskararen erabileraren igoera hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan gertatu da.


Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera  
EAE, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Gune soziolinguistikoei dagokienez, EAEko **lehenengo hiru gune soziolinguistikoetan euskararen erabilerak gora egin du** 1991 eta 2021 bitartean: 4,4 puntu lehenengo gunean, 6,4 bigarrenean eta 7,3 hirugarrenean. **Laugarren gune soziolinguistikoan, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (-9,7 puntu)**. Beherakada hori azken ia bi hamarkadatan izan diren biztanleen mugimenduen ondorioa da nagusiki.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Sexuari dagokionez, **euskararen erabileran, oro har, ez dago alde esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen artean**: euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea % 21,8 da emakumezkoen artean eta % 22,1 gizonezkoen artean. Laneko erabileran, baina, bada alderik, eta alde hori emakumezkoen aldekoa da (2,5 puntu gainerik dago emakumezkoen erabilera).

Euskara erabiltzen dutenen **ehunekorik handiena gazteek** dute (% 33,5) eta **txikiena 65 urtetik gorakoek** (% 16,7). Alderantziz gertatzen zen duela 30 urte.



Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. EAE. 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Euskararen erabilerak gora egin du erabilera-eremu guztietan, eta bereziki eremu formalean. Azken 30 urteotan, **euskararen erabilerak etxean** gorabehera txikiak izan ditu, baina **azken bost urteotan 2,7 puntu egin du gora**. Hazkunde hori bikotekidearekin egiten den erabilerak eragin du neurri batean. Lagunartean erabilerak 6 puntu egin du gora.


Eremu formal pribatuan, azken 30 urteotan **11,4 puntu egin du gora lankideekin** euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajeak, **7,6 puntu dendariekin** eta **7 puntu bankukoekin**. Eremu formal publikoan, hazkundera **14,6 puntukoa izan da osasun-zerbitzukoekin** eta **12 puntu udal zerbitzukoekin**.

Interneteko sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da, baita gazteenen artean ere. Hala ere, **erabiltzaileen % 19,5ek maiztasun handiz erabiltzen du euskara ingurune digitalean** (maiztasun handiz esan nahi du pertsona batek ingurune digitalean egiten duen jardunaren erdia edo gehiago euskaraz egiten duela). **Gazteen artean (16-24 urte), euskara maiztasun handiz erabiltzen dutenak % 28,5 dira**. Gazteek ingelesa ere gero eta gehiago erabiltzen dute.

## EUSKAREREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

**Euskararen erabilera sustatzeari aldeko jarrerak 12 puntuko hazkundera izan du 1991 eta 2021 artean.** Aurka daudenen ehunekoak eta ez alde ez aurka daudenenak, ordea, behera egin du (-7,2 puntu eta -4,7 puntu, hurrenez hurren).


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera.  
EAE, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, lau iritziren arabeko tipologia eratu da. Iritzi horien artean, aldekotasan handiena izan duten iritziak bi hauek izan dira: haur guztiek euskara ikasi beharko luketela iritzi du gizartearen % 89,3k eta Administrazioan sartzeko euskara jakin beharko litzatekeela % 74,7k. Aurkako ehunekorik handiena, ostera, hobe dela ingelesa ikastea euskara ikastea baino dioen iritzia da (% 51 aurka).

Jarreraren tipologia osatzeko aintzat hartu diren lau iritziak.  
EAE, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021

Euskarari buruzko interesari buruz galdetuta, **EAEko biztanleriaren % 63,2k interes handia edo nahiko handia du euskararekiko**, % 15,2k interes apur bat, % 20,9k interes txikia edo bat ere ez.

Bestalde, hamarretik ia bederatzik esan du etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela (% 88,2), eta hamarretik batek euskara hutsean (% 9,5).